



OINARRIZKO EKINTZAK

Atal honetan gure kafetegian sartzera nolakoa izango den prozesua azalduko dugu. Baita, beste hainbat xehetasun ere. (Orduetgia, hitzorduak, animalien informazio garrantzitsua...)

Sartzean, lehenik eta behin, animaliekin egoteko intenziorik gabe sar daitekeen kafetegia ikusten da; gero, animaliekin elkarreragiteko aukera dago, eta horrek kostua izango luke (beste areto batean animaliekin elkarreragiteko eta zerbait hartzeko).

Hitzordua eskatzeko prozesua nahiko erraza da.

Guk animalientzako ordutegi bat dugu, non, animalia horiek ezagutu nahi dituzten bezeroek tarte horretan erabaki ahal izango dute hobeto datorkien orduan etortzeko.

Animalientzako dugun ordutegia ez da kafetegikoaren berdina; izan ere, kafetegia eguardian ez du itxiko.

- Kafetegiko ordutegia: 11:00etatik 19:00etara.
- Animalien ordutegia: 11:00tik-13:00etara eta 16:00tik-18:00etara.

Baita ere, bi egongela separatuak ditugu ez zaigulako bidezkoa iruditzen zerbait hartzera datozen bezeroek animaliekin elkarreragitera datozenekin nahastea eta gela bera erabiltzea osasun eta garbitasun aldetik.

Aurretik hitzordurik gabe datozenei sartzeko aukera emango zaie, aforua beteta ez badago eta lekua badago; aforua beteta badago, beste egun batean etorri beharko dute, aldez aurretik hitzordua eskatuta.

PUNTU GARRANTZITSUAK:

- Animalientzako txandak; ezinezkoa da gela berean animalia guztiak denbora berean elkarrekin egotea, horregatik, gure kafetegian goizeko eta arratsaldeetako txandatan banatuko da animalia bere espazio eskaintzeko.
- Hainbat azpi kontratu izango ditu gure enpresak, alde batetik kafetegirako, era askotako edariak eta elikagaiak bezero bakoitzaren gustuak eta beharrak asetzeko. Halaber, animalientzat marka desberdinekin erlazionatuko ginategi, enpresarako kalitatezko produktuak lortu eta animaliak zaindu ahal izateko.
- Albaitari batekin harremanetan egongo ginategi animaliek arazoren bat edukiko balute bertan ikus dezaten zer duten eta animaliak sendatu ahal izateko.
- Ikastetxeentzako edo behar bereziak dituzten pertsonentzako interakzio-zerbitzua eskainiko ditugu. Zerbitzu hauetarako animalien gela osoa ordu batez erreserbatu ahal izateko.